




**Bilboko
Elizbarrutia**
DIÓCESIS DE BILBAO

BESTEekin BATERA GARA

B SAIOA

GURASOENTZAT PARROKIAN

**Delegación de Anuncio y Catequesis
Fede- Zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza**



**"... bakoitzari bere
gaitasunaren arabera"
Mt 25, 15**

1. Helburu nagusia

- Jainkoak, zorioneko izan gaitzen eta mundu hobearen eraikuntzan Berarekin elkarlanean jardun dezagun, bizia oparitu digula aitortu.

2. Helburu bereziak

- Jainkoan eman dizkigun gaitasunez jabetu eta esker ona adierazi.
- Gure zentzumen eta gaitasunez baliatuz, besteekin eta Jainkoarekin hartu-emana izan dezakegula konturatu.
- Beharrizan gorrian daudenak aurkitzeko eta beraiei laguntzeko Jesus beti dagoela prest aitortu.
- Egunez egun, gure gaitasunak garatuz, mundu hobea egiten lagun dezakegula ikusi.

3. Saioak

- B Saioa, gurasoentzat parrobian.

4. Aurkituko duzuna

- Motibazioa: ideia nagusiak.
- Jainkoaren Hitza, txatala.
- Abestia / ipuina / bideoa.
- Saioaren garapeneko jarduera eta azalpen zehatza.
- Bilketa eta laburpena egiteko proposamena.
- Ezinbesteko lagungarriak.

B SAIOA GURASOENTZAT PARROKIAN



Motibazioa

- Garen guztia, gu geu, besteak eta mundu osoa zorioneko izateko zer egin dezakegun konturatu eta eskertu.



Azpimarrak

- Denok ditugu gaitasunak eta askotarikoak dira.
- Gure gaitasunak besteen esanetara jartzea dagokigu, denon artean mundu hobea egin ahal izateko.




Idea nagusiak

- Bizia sentituko dugu: Barneratzeko ariketa
- Talentuen parabola. Mt 25, 14-30
- Gure gaitasunekin, mundu hobea egingo dugu



Ezinbesteko lagungarriak

- Audioa barneratzeko ariketa egiteko
- Koloretako kartulinak
- Kartulinazko lorea
- Guraizeak



Saioaren deskribapena

Saioa lau unetan banatuko dugu:

- 1. unea: Agurra eta aurkezpena. 1. urratsa (5 minutu)
- 2. unea: Barneratzeko ariketa . 2-3 urratsak (15 minutu)
- 3. unea: Jainkoaren Hitza eta sakontzea. 4-6 urratsak (25 minutu)
- 4. unea: Adierazpena eta laburpena. 7. urratsa (10 minutu)



1. Unea. Agurra eta aurkezpena



1. Urratsa. Gure bihotzera eraman dugu, berriz ere, ideia esanguratsu hau. Jainkoarengandik biziaren oparia, Kreatzio osoa, jaso dugula eta hor gizaki bakoitza, pertsona bakoitza, gutariko bakoitza, baliotsuena dela. Jaiotzeaz batera, altxorrik preziatuena jasotzen dugu: gure bizia, bizi izateko aukera.



2. Unea. Barneratzeko ariketa



2. Urratsa. Saioari hasiera emateko, barneratzeko ariketa egingo dugu, irudikapena. Horrela, "bizia sentituko dugu" eta gauza garen guzti horretara irekiko gara.

Ariketari ekin aurretik, laguntzaileak argibideak emango ditu, gerta liteke-eta batzuentzat lehen aldia izatea eta, horregatik, jarduera nahiko arraro egitea. Besteak beste, hauek azalduko dizkie:

- Egingo dugun ariketa, erraza da. Sentipen eta sentimenduak azalerratzeari da helburu nagusia.
- Normalean, begiak itxita izaten ditugu ariketa hau egiteko. Norbait deseroso sentitzen bada, nahikoa da begirada jaistea.
- Isilik egingo dugu, entzungo duguna adi entzunez eta esaten zaigunari jaramon eginez. Norbait galtzen bada, ariketan sartzen ez bada, ez da ezer gertatzen, lasai itxaron dezala amaitu arte.

Ibilbide erlaxagarria.¹

**Entzuteko,
klikatu irudian**



3. Urratsa. Irudikapena amaituta, batera jarriko dugu:

- Nola sentitu gara?

Kartulinazko txartel bana emango diegu. Isilik, 3-4 minututan, bakoitzak idatz dezala paseoan antzeman duena, bere txartelean: sentimenduak, zirrarak, irudiak,...

3. Unea. Jainkoaren Hitza eta sakontzea



4. Urratsa. Laguntzaileak hauxe esango du: Oparirik preziatuena jaso guru: gure bizia. Zer egingo dugu horrekin? Bideo hau ikusiko dugu: "Vida consciente"

**Ikusteko,
klikatu irudian**



Bideoari buruz hitz egin eta iritziak batera jarri: *Era kontzientean bizi dut nire bizitza ala "gainetik pasatzen" uzten diot?*



5. Urratsa. Ebanjelioak gure bizitzarako norabidea proposatzen digu. Irakurriko dugun paraban, Jesusek galdera egingo digu: Zer egiten dut jasotakoarekin? *Eranskina laguntzaile, katekista eta gurasoentzat* agirira joz gero, laguntzaileak argibideak aurkituko ditu partaideei parabolaren zentzuan eta gaur duen esanahian sakontzen laguntzeko.

¹ <https://www.osakidetza.euskadi.eus/zaindu-osasuna/-/paziente-bizia-programa/>

TALENTUEN PARABOLA Mt 25, 14-30 (I. Eranskina)

Laguntzaileak parabolaren esanahia ulertzen lagunduko die:

- Jesusen garaian, "talentuak" balore handiko txanponak ziren. Guretzat, gaur egun, "talentu" hitzak beste esanahi bat du: pertsona bakoitzaren onena, bere balioak, bere gaitasun eta trebetasunak...
- Talentuak baliagarri izango badira, ezinbestez jokoan jarri behar ditugu, garatu, hazarazi... Lurpean ezkututzen badira, ez dute ezertarako balio.
- Inork ez du ezer egin horiek jasotzeko, doan eman zaizkigu. Jainkoaren dohain dira,...
- ... denontzako mundu hobearen eraikuntzan, bizitza zoriontsuagoaren eraketan laguntzeko. Gure talentuak martxan jarri ahala, gure inguruko bizitza hobetuz joango da.



6 Urratsa. Hausnartu eta batera jarri, ...

- Jabetzen naiz nire balioez, talentuez, dohainez?
- Aita eta ama bezala, zeintzuk ote dira nire talenturik onenak?
- Jainkoaren dohain bezala sentitzen ditut?
- Besteen eta mundu hobearen eraikuntzaren alde bizi ditut?



4. Unea. Adierazpena eta laburpena.



7. Urratsa. Jardunbide hau garatuko dugu: Partaide bakoitzari lorearen silueta duen koloretako kartulina emango diogu (II. eranskina). Beren talentuetako bat idatziko dute han eta baita nola jarriko duten besteen eta mundu hobearen alde. Hurrek ere gauza bera egingo dutela esango diegu eta hitz egin dezatela horri buruz etxean. Loreak (talentuak) batera jartzean, etxea dotoretu egingo duen lore-sorta osatuko dugu.

Saioari amaiera emateko, otoitz egingo dugu, Jainkoari eman dizkigun dohain guztiak eskertuz.

**Eskerrik asko, Aita Jainkoa _____
gure seme edo alabagatik.**

**Hazten ikustendugu eta gure poztasun da,
irribarre egin eta bizia ematen digu,
bere begi garbiez begiratu eta
munduarekin adiskidetzen gaitu.**

**Eskerrik asko,
Aita Jainkoa, opari honengatik.**

**Bere zentzumen guztiak haz daitezela,
eta horiekin batera,
besteenganako maitasuna gehi dadila.
Bere talentu guztiak fruitu eman dezatela
mundu zoriontsuagoa egiteko.
Bitartekorik onena izan daitezela
horien bidez zure borondatea egiteko.**

**Eskerrik asko,
Aita Jainkoa, opari honengatik.**

I. Eranskina

TALENTUEN PARABOLA, Mt 25, 14-27

«Jainkoaren erregetzarekin, atzerrira irten behar zuen gizonarekin bezala gertatzen da. Bere morroiei dei egin eta ondasunak utzi zizkien: bati bost talentu, beste bati bi eta besteari bat, bakoitzari bere trebetasunaren arabera. Gero, alde egin zuen. Bost talentu hartu zituenak inbertitu egin zituen berehala eta beste bost irabazi. Orobat bi talentu hartu zituenak: inbertitu eta beste bi irabazi zituen. Bat bakarra hartu zuenak, aldiz, lurrean zuloa egin eta bertan gorde zuen nagusiaren dirua.



Handik denbora askora, etorri zen nagusia eta morroiei kontuak hartzen hasi zitzaion. Aurreratu zen bost talentu hartu zituen eta beste bost aurkeztu zizkion, esanez: “Jauna, bost talentu utzi zenizkidan; hona beste bost nik irabaziak”. Nagusiak esan zion: “Ederki, morroi on eta leiala! Gauza gutxian leial izan zara, askoren buru ipiniko zaitut; sartu zeure jaunaren festa ospatzera”. Aurreratu zen, gero, bi talentuduna eta esan zion: “Jauna, bi talentu utzi zenizkidan; hona beste bi nik irabaziak”. Nagusiak esan zion: “Ederki, morroi on eta leiala! Gauza gutxian leial izan zara, askoren buru ipiniko zaitut; sartu zeure jaunaren festa ospatzera”.

Aurreratu zen talentu bakarra hartu zuena eta esan zion: “Banekien gizon zorrotza zarena, erein ez duzun tokian hartzen eta zabaldu ez duzun tokian biltzen duzuna; beldur nintzen, eta zure talentua lurrean ezkutatu nuen. Hona zeure dirua!” Nagusiak erantzun zion: “Ai morroi gaizto eta alferra! Bazenekien erein ez dudana hartzen dudana eta zabaldu ez dudana tokian biltzen. Beraz, bankuan jarri behar zenuen nire dirua, itzultzean bere korrituekin jaso nezan».



II. Eranskina

